

BAZKIDE KOLABORATZAILEA

Zaldibiako Udala. - Goiener Taldea

TESTUINGURUA.

Gaur egungo garai eta gizartean, hainbat erronka ditugula badaki pertsona orok.

Horietako bat, bizitzen ari garen *Larrialdi Klimatika* da. Nazio Batuen IPCC erakundeak egindako txosten ezberdinek gero eta ageriago uzten dute bizi dugun garai historikoaren larritasuna. **Gizakiak kliman eragindako aldaketek gure zibilizazioa kolapsora eraman dezakete**, eta hamarkada gutxi batzuk baino ez zaizkigu gelditzen garapen eredia sakonki eraldatu eta klima aldaketaren ondorio suntsigarriak leuntzeko.

Jada ezin daiteke gelditu, baina oraindik garaiz gaude lurraren beroketa 1,5 graduen azpitik mantendu eta azken 2.000 urteetan gizakiak eraikitakoa ez galtzeko. **Hurrengo hamarkada gakoa izango da** honetarako, hurrengo 10 urteetan hartzen diren edo hartzen ez diren erabakiek baldintzatuko dutelako gure zibilizazioaren etorkizuna.

Ziurgabetasun handiko garaiak bizitzen ari gara eta honek errealitateari momentu oro egokitu behar izatera garamatza. Gizakiaren garapena interes ekonomikoen aurrean lehenesten duen gizartea, non kultura eta gatozen sustraiei begiratzen diena eta ingurua errespetatzen duena, gizarte osasuntsu eta justuagoa dela ulertzen dugu. Goienerren urteak daramatzagu honetan lanean, energia honetarako tresna dugularik.

GOIENER TALDEA.

Goiener Taldea energia kooperatiba herritar bat da, irabazi asmorik gabekoa.

Argindar %100 berriztagarriaren eskaera areagotuz, Goiener Taldea **eredu energetikoa aldatzearen alde diharduen kooperatiba** da. **Bazkideei argindar %100 berriztagarria saltzen die eta bere energia berde propioa ere sortzen du.**

Goiener ingurumenarekin konpromisoa daukaten pertsonak osatzen dute, kontsumo arduratsua sustatzen du kooperatibak, kontzientziario eta informazio

ekintzak eginez. Hortaz, Goienarren eginkizuna da **oinarrizko ondasun baten, energiaren, kontrola berreskuratzeko** herritarren eskaera bideratzea.

Kooperatiba herritarra den aldetik, berdinen artean lan egin eta erabakitzen da, **bazkide bat bozka bat** delako. Bazkideek ilusio osoz bat egiten dute kooperatibako ekintzekin, **tokiko garapen ekonomikoaren** alde eginez. ***Gertu gaude eta gertukoak gara.***

Goienerrekin 2012an hasi zuen bere kooperatiba ibilbidea 30 bolondresen lanari esker. **2020ko urrian 12.500 bazkide baino gehiago ditu kooperatibak** eta helburua geroz **eta herritar, enpresa eta entitate publiko** gehiagorengana iristea da. Elkarrekin bidea eginez gozatu nahi da, ingurumenaren eta aldaketa energetikoaren aldeko ahotsa goratzeko denak elkarrekin.

Goienerekin erakunde anitza da, **egungo sektore energetikoaren ereduari alternatiba bat** eskaintzeko lagundu nahi duten gizarte eragile eta eragile politiko orori irekia.

Era berean, bazkideek sorkuntza **berriztagarriko egitasmoetan inbertitu** ahal dute, kooperatibak berak kontsumituko lukelarik ekoiztutako energia hori.

Azken helburua, **kooperatibak sorturiko energia kopurua bazkideek kontsumitzen duten kopuru bera izatea da**, hori guztia **energia berriztagarrien** bitartez eta ahalik eta kontsumo arrazional eta eraginkorrena eginez.

BAZKIDE KOLABORATZAILEAK.

Bazkide Kolaboratzailea kooperatiben berezko estatutu figura bat da. Norbanakoek eskaintzen dituzten zerbitzuak ez dituzte nahitaez beraien artean kontsumitu behar. Figura honen arrazoia, helburua eta xedearekin bat datorrela adieraztea da.

Harreman honetan, kolaboratzaileak ez du etekin ekonomikoa lortzeko asmorik baizik eta, kooperatibaren esku jartzen ditu bere jakintza eta kontaktu sarea, kooperatibaren helburu soziala zabaltzeko, kasu honetan Goienerekin Taldearena. Goienerrekin, Bazkide Kolaboratzaile orori Ikusgarritasuna ematen dio webgunean.

Bazkide Kolaboratzailea izateak kooperatibarekiko atxikimendu ekonomikoa dakar, bakoitzaren estatutuen arabera. **Goienerrekin Bazkide Kolaboratzaile orok 1.000 euroko ekarpena egingo lioke kapitalari, gutxienez.**



Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba
Cooperativa de generación y consumo de energía renovable



Zaldibiako Udala

Bazkide Kolaboratzailea eta kooperatibaren artean, **lankidetzaz hitzarmen** zabalago bat eraiki daiteke. Bi aldeek, elkarren artean dituzten helburu eta interesak argituz.

Adibide gisa, beste eragile/enpresa batzuekin hurrengo ekintzak jaso ditugu lankidetzaz hitzarmenean:

- Hornidura elektrikoaren kontratuak beharretara egokitzeko aholkularitza.
- %100 berriztagarria den hornidura energetikoa bermatzea.
- Autokontsumo instalakuntzak ezartzeko dagoen potentzial eta bideragarritasun azterketak.
- Kontzientziario tailerrak. Efizientzia energetikoa, energia berriztagarriak, autokontsumoa, komunitate energetikoa, etb.
- Etb.

Hauek dira gaur egun Goienener Taldeko Bazkide Kolaboratzaileak:

